

## EUSKARAREN NORMALIZAZIOA TESTUINGURU ASKOTARIKOAN

**Castillo Suárez**

*Sakanako Mankomunitateko euskara teknikaria*

**Mikel Galartza**

*Sakanako Mankomunitateko hautetsia*

Helbide elektronikoa: [euskara@sakana-mank.com](mailto:euskara@sakana-mank.com)

### SARRERA

Euskararen normalizazioan diharduten gizarte erakundeek eta erakunde publikoek garrantzizko erronka bati aurre egin behar diote, alegia, gaur egun Euskal Herrian nagusi den kultura eta hizkuntza aniztasuna kudeatzen jakin beharko dute. Izan ere, jende askok, iritsi berritan, ez du Euskal Herriaren ikuspegirik, eta berezko hizkuntza badela ere ez dakite. Premi-azkoa da, eta beharrezkoa, etorkin saldo iritsi berrien artean euskararengana eta euskara sustatzeko egiten ari den lanarenganako jarrera positiboa bultzatzea —edo errespetuzkoa, bederen—; eta orobat beharrezkoa da etorkin horiek guztiak hizkuntzaren normalizazio prozesuan txertatzea.

Bestalde, euskararen normalizazio prozesua inoiz baino konplexuagoa da, azken urteotan herrialde askotako jendea etorri baita Euskal Herri-  
ra bertan bizilekua hartzera, eta jende horrek bere hizkuntza ekarri du. Egoera horretan, etorkinen eta harrera gizartearen hizkuntza eskubideak, eta bereziki, beren hizkuntza bi hizkuntza estatalekin partekatzen duten eremu urriko hizkuntza komunitate bateko kideen hizkuntz eskubideak, nola tankeratu eta bermatu litezkeen asmatzea izango da gure erronka nagusia.

Horiek horrela, gure ustez euskararen normalizazioa helburu duen hizkuntza politikak, testuinguru askotarikoa kontuan hartuta, izan behar-ko lituzkeen osagaiak azaldu nahi izan ditugu labur-labur lan honetan. Testuinguru askotariko horretan, jende askoren eremu kulturalak euskal eremuaren bestelakoak dira, eta gainera ez dituzte herritartasun eta nazio-tasun eskubideak bermatu.

## GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSIA: ABIAPUNTUAK

### Mehatxuak (inguruneke egoera kaltegarriak)

#### Hizkuntzaren egoera

a) Globalizazioaren ondorioz, bizkortzen ari da eremu urriko hizkuntza askoren desagertzeko prozesua.

b) Euskararen lurraldea bi estatutan banatuta dago eta bost erregimen administratibotan; horren ondorioz, ezin bidera daiteke hizkuntza politika nazional eta bateraturik.

c) Euskara ez da ofiziala Euskal Herri osoan. Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoaren zati batean baino ez da ofiziala.

d) Frantziako eta Espainiako estatu-ek euskararekiko duten politika guztiz beligerantea da.

e) Euskal Herriko herri administrazio guztietan eta lurralde historiko guztietan era sistematikoan urratzen dira hizkuntza eskubideak.

#### Immigrazioa eta aniztasuna

a) Immigrazioari dagokionez, estatuek dute alor horretan eskumena, nahiz eta autonomia erkidekoek gai horren tratamenduan eragin zuzena duten hainbat eskumen hartu dituzten beren gain.

b) Etorकिनak, beren egoera administratiboa dela-eta, egoera berezian bizi dira eskubideei dagokienez. Zentzu horretan, lagun asko eta asko daude egoera irregularrean, arazo larriak dituztenak lan munduan, eta ondorioz, gizartean, sartzeko.

c) Nazio mailan informazio gutxi dago immigrazioaren errealitateari buruz.

d) Ez dago etorkinak hartzeko eta integrazio prozesua egituratzeko eginkizuna duen erakunde nazionalik.

e) Etorकिन askok ez dute Euskal Herriaren ikuspegirik.

*Bestalde, euskararen normalizazio prozesua inoiz baino konplexuagoa da, azken urteotan herrialde askotako jendea etorri baita Euskal Herrira bertan bizilekua hartzera, eta jende horrek bere hizkuntza ekarri du. Egoera horretan, etorkinen eta harrera gizartearen hizkuntza eskubideak, eta bereziki, beren hizkuntza bi hizkuntza estatalekin partekatzen duten eremu urriko hizkuntza komunitate bateko kideen hizkuntz eskubideak, nola tankeratu eta bermatu litezkeen asmatzea izango da gure erronka nagusia.*

---

*Estereotipoek eta aurreiritziek murrizten dute etorkinek euskara ikasteko izan dezaketen motibazioa. Horrela, etorkinek ez dute euskara ikasten, besteak beste, ez direlako euskal komunitateko partaide sentitzen.*

*Etorkinak gizarte, ekonomia eta politika ahalmen handiena duten hizkuntzara egokitu ohi dira: gaztelania edo frantsesa.*

f) Euskal Herrian lau pertsonatik batek daki euskaraz. Eta, portzentaje hori behar lukeena baino mantsoago hazten ari da.

g) Azken urteotan, ez aurrera ez atzera gelditu dira euskararen erabilerari dagozkien portzentajeak. Desoreka handia dago euskal hizkuntzaren ezagutzaren eta erabileraren artean<sup>1</sup>.

h) Jende askoren ustez –etorkinak zein bertakoak–, euskara ez da ezinbesteko hizkuntza euskal gizartean moldatzeko.

i) Gaur egungo hizkuntza ereduen politikak ez du euskalduntzen, eta gazte askok, derrigorrezko ikasketak amaitzen dituztenean, ez dute euskara menderatzen.

j) Helduen alfabetizatzea-euskalduntzea ez da doakoa, botere publikoek euskalduntze-alfabetizatze erakundeei ematen dieten babes ekonomikoak ez baitu horretarako aukera ematen.

k) Euskaltegietara euskara ikastera joaten diren helduen kopurua jais ten ari da.

l) Helduentzako trebakuntzari dagokionez, hizkuntza irakasten den kasuetan, normalean gaztelania/frantsesa irakasten da, eta ez euskara.

f) Orain arte egindako ekimenak unean unekoak izan dira, eta koordinazio gutxirekin eginak izan dira, gainera.

g) Etorkin gehienek modu endogeno batez burutzen dituzte aisialdiko ekintzak: familiarekin, jatorri bereko pertsonekin...

h) Etorkinen seme-alaba asko berandu inkorporatzen dira hezkuntza sistemara, bai ikasturtea hasita inkorporatzen direlako, bai derrigorrezko hezkuntza baino goragoko mailetan egiten dutelako.

i) Ikastetxearen eta etorkin familien arteko harremana eskasa da (hizkuntzagatik edo denbora ezagatik, edo jatorrizko herrialdeetako ikastetxeetan beste era bateko harremana zegoelako...).

j) Zenbait ikastetxetan ez dituzte ikasle etorkinak nahi, ustez ikastetxearen kalitatea jais ten delako.

k) Etorkinen seme-alabek aisialdiko jardueretan gutxitan parte hartu ohi dutela egiaztatu ahal izan da.

l) Emakumeen integrazioa are zailagoa izaten da, beren etxean bilduago egoten baitira.

## Ahultasunak (barne egoera kaltegarriak)

a) Estereotipoek eta aurreiritziek murrizten dute etorkinek euskara ikasteko izan dezaketen motibazioa. Horrela, etorkinek ez dute euskara ikasten, besteak beste, ez direlako euskal komunitateko partaide sentitzen.

b) Etorkinak gizarte, ekonomia eta politika ahalmen handiena duten hizkuntzara egokitu ohi dira: gaztelania edo frantsesa.

c) Euskara eta euskal kultura ez ezagutzeak etorkinen integrazioa zailtzen duen ideiak eta ez ezagutze horrek diskriminazio bikoitza eragiten duen ideiak ez dute behar adina indarririk gizartearen baitan.

d) Etorkinen nortasuna osatzen duten oinarrizko hizkuntza eta kultura osagaiak ez dira, oro har, ezagutzen.

e) Jatorrizko hizkuntza mantentzeko programarik ia ez dago.

f) Jende askok oraindik pentsatzen du etorkinak integratu daitezen beren identitatea, hizkuntza, ohiturak, erlijioa... alde batera utzi behar dituztela.

g) Kulturantzatasuna sustatzeko egitasmoak kulturarteko jaiak antolatzera mugatu dira, eta horietan nagusi izan dira gastronomia, musika eta folklorea oro har.

h) Etorkinek ez dakite, oro har, zer hizkuntza eredu dituzten aukeran.

i) Zenbait ikastetxetan beste kultura eremuetako haurrak kontzentratuta daudela nabarmendu da.

j) Etorkinen seme-alabak A ereduari matrikulatzeko joera nabarmena da: ezagutza faltarengatik, sorterrira itzultzeko asmoa dutelako...

k) Etorkinen familietatik heldu diren ikasle asko submersio ereduari daude, hau da, ikastetxean ez dute aukerarik beren jatorrizko hizkuntza ikasi, mantendu edo hobetzeko.

l) Eskola porrotaren adierazleak altuagoak dira etorkinen seme-alaben artean. Horrekin lotuta, beren ezagutza linguistikoa bertako haurrena baino pobregoa izaten da.

m) Batzuetan, etorkinek beren jatorrizko hizkuntza alde batera utzi eta eskolako hizkuntzaren aldeko hautua egiten dute, beren seme-alabek eskolako hizkuntza hobeki ikasiko dutelakoan.

n) Hezkuntza arautuaren barruan, curriculum diseinuak ez daude kultura aniztasunera egokituak. Gaur egungo hezkuntza jarduna, etorkinei buruz, orekatzailea da.

o) Askotan, aniztasunari eta hizkuntzen errespetuari buruz egiten diren apamenak, gizarte bazterketa estaltzeko erabili ohi dira —gutxi-asko nahita—, hau da, kulturari eta gizarteari dagokionez baztertuta daudenak beren bazterketaren erantzule direla argudiatu ohi da.

---

*Hezkuntza arautuaren barruan, curriculum diseinuak ez daude kultura aniztasunera egokituak. Gaur egungo hezkuntza jarduna, etorkinei buruz, orekatzailea da.*

**Askotan, aniztasunari eta hizkuntzen errespetuari buruz egiten diren aipamenak, gizarte bazterketa estaltzeko erabili ohi dira –gutxi-asko nahita—, hau da, kulturari eta gizarteari dagokionez baztertuta daudenak beren bazterketaren erantzule direla argudiatu ohi da.**

## **Aukerak (aldeko egoerak, ingurunearen ondoriozkoak)**

### **Hizkuntza egoera**

- a) Euskararen gizarte erakundeak oso dinamikoak dira, eta antolatze-ko ahalmen handia dute.
- b) Euskal herritarrek euskararekiko duten jarrera, oro har, positiboa da. Era horretara, gehienek ondo ikusten dute euskara sustatzeko neurriak hartzea.
- c) Euskal hiztunen portzentajearen murrizketa geldiaraztea lortu da<sup>2,3</sup>.
- d) D eredua hautatzen duten gurasoen ehunekoak gora egin du<sup>4</sup>.
- e) Jendeak gero eta barneratuagoa du ama hizkuntzaz gainera 2H edo 3H goiz ikasteak abantaila kognitibo asko ekartzen dituela.
- f) Kulturaren eta komunikazioaren alorrean euskal enpresen ehuna eratuta dago.
- g) Euskararen balio erantsia handitzen ari da eremu sozioekonomikoan.
- h) Euskarak –Euskal Autonomia Erkidegoan batez ere– gero eta balio instrumental handiagoa du.
- i) Euskal Herriko autonomia erakundeek (Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak, esate baterako), eskumena dute hezkuntzaren eta hizkuntza politikaren eremuan.
- j) Etorकिन lehen harrera tokiko erakundeek egiten dute.

### **Immigrazioa eta aniztasuna**

- a) Gaur egun euskal gizarteak immigrazioari buruz duen pertzepzioa ez da, oro har, negatiboa.
- b) Gero eta zabalduago dagoen iritzia da immigrazioa aukera bat dela, alderdi kulturalari zein sozialari dagokionez hazteko eta garatzeko aukera ematen baitigu.
- c) Etorकिन askok elkarteetan parte hartzen dute. Asoziazionismoa handiagoa da etorkinek berek sortutako erakundeetan, baina gizarte hartzailearen erakundeetan etorkinek duten parte hartzea kontuan hartzekoa da —sindikatueta, esate baterako—.

## Indar guneak (barne egoera onuragarriak)

a) Euskal kultura, eta bereziki euskara, ikastea eta ezagutzea lagungarria da etorkinentzat gizarteratzeko prozesuan, izan ere, hizkuntza da etorkinen integrazioa errazteko tresna nagusia eta funtsezko erreminta.

b) Hezkuntza arautua oinarrizko eremua da etorkinen eta haien ondorengo integrazioari dagokionez. Zentzu horretan, hezkuntzaren eremu-antolotasun handia dago immigrazio berriari begira.

c) Euskal Curriculumaren sorrera abian da. Curriculum horretan bilzen den alderdietako bat kulturarteko hezkuntza da.

d) Zenbait etorkinek beren seme-alabak D eremuan matrikulatzea hautatu dute, eta zenbait kasutan, gurasoak ere euskara ikasten ari dira. Erreferentziazko pertsonak dira, eta egoera hori baliagarria izan daiteke.

e) Zenbait etorkinen hizkuntzak eta kulturak eremu urrikoak dira. Eta hori lagungarria izan daiteke euskal hizkuntza eta kultura berreskuratze-ko eta errespetatzeko borrokari dagokionez.

f) Etorkinen familietatik heldu diren ikasleek maila ona dute beren jatorrizko hizkuntzaren gaitasunari dagokionez.

## EREMU URRIKO HIZKUNTZA BATEN NORMALIZAZIO POLITIKA TESTUINGURU ASKOTARIKOAN:

### Oinarrizko premisak

a) *Zeharkakotasuna*. Immigrazioaren erronkak zeharkakoa izan behar du.

b) *Lurraldetasuna*. Ekimen guztietan Euskal Herri osoko eragile guztiek parte hartu behar dute. Halere, garrantzi handikoak dira udalerrietan egiteko ekimenak, horiek baitira herritarrengandik hurbilen dauden errealitateak.

c) *Koordinazioa*. Ezinbestekoa da eremu honetan lanean diharduten erakundeen arteko koordinazioa. Eta horretarako, interesgarria litzateke koordinazio organo bat sortzea. Bertan, gizarteko, sindikatu-erakundeetako eta etorkin erakundeetako eragile guztiek parte hartuko lukete.

d) *Interakzioa*. Integrazioa erreala izango bada, ezinbestekoa da etorkinen eta bertakoen arteko interakzioa. Horregatik, garrantzi handikoa da eremu partekatuetan edukitzea, era horretara, murriztu egiten baitira diskriminazioa eta arrazismoa.

e) *Prebentzioa*. Atzeritarren etorrera aurrez kudeatu behar da, eta politika aurreratzailea antolatu behar da. Pertsona batek harrera egiten dion gizarte-eremuaren buruz duen lehenengo irudiak, lehenengo kontaktuak, lehenengo harremanak baldintzatzen dute pertsona horrek iritsi den lekuari buruz izango duen ikuspegia, pertsona hori herrialdean erabat gizarteratzea, eta oro har, gizarte kohesioa lortzea. Helduera da, beraz, unerik garrantzitsuena.

---

*Koordinazioa. Ezinbestekoa da eremu honetan lanean diharduten erakundeen arteko koordinazioa. Eta horretarako, interesgarria litzateke koordinazio organo bat sortzea. Bertan, gizarteko, sindikatu-erakundeetako eta etorkin erakundeetako eragile guztiek parte hartuko lukete.*

---

**d) Interakzioa.**  
**Integrazioa erreal izango bada, ezinbestekoa da etorkinen eta bertakoen arteko interakzioa.**

f) *Behin-behinekotasuna*. Etorkinen harrera kudeatzeko xedez egiten diren ekimenek behin-behinekoak izan behar dute, definizioz, eta baita aldi baterakoak ere.

g) *Unibertsaltasuna*. Esku-hartzeko ekimenak jende guztia kontuan hartzen dela antolatuta behar dira, pertsonak duen definizioa eta estatuek ezartzen dituzten eskubide desberdintasunak kontuan hartu gabe.

h) *Normalizazioa*. Oinarrizko helburua izan behar du pertsonen aurretik dauden zerbitzuen arabera harrera egitea, egitura paralelorik osatu gabe. Edonola ere, pertsona bakoitzaren egoerari arreta berezia jarrita aplikatu behar da normaltasuna.

i) *Bi norabidetan*. Ezinbestekoa da etorkinek euskal kultura eta hizkuntza ezagutzea, baina, aldi berean, etorkinen jatorrizko hizkuntzak eta kulturak ere errespetatu egin behar dira.

j) *Integralismoa*. Euskararen erabilera zabaltzeko politikaren helburua biztanle guztiek hizkuntza hori ezagutzea izan behar da, nahitaez; eta hizkuntzak gizartearen sektore guztietan egon behar du, eta, besteak beste, iritsi berriak sozializatzeko espazioak osatzen dituzten eremuetan.

## Helburuak

### Helburu orokorrak

a) Euskal Herria, eta bereziki bertako hizkuntza eta kultura, etorkin iritsi berriei ezagutaraztea.

b) Euskal Herrian diren kulturen arteko harremanak sustatzea, berdintasuna, solidaritatea eta errespetua oinarri hartuta.

### Helburu espezifikoak

a1) Harrera eta arreta protokoloak diseinatzea, izaera nazionala izango dutenak, euskal hizkuntza eta kultura ezagutuko direla bermatzeko.

b1) Euskal Herriko eragile sozialentzako formazio eskaintza zabaltzea, kultura askotako jendearekin esku-hartzeko lanean lagungarri izan diezaien.

b2) Etorkinak euskal gizartean eta kulturaren, eta baita parte-hartze eta elkarrizketa eremuetan ere, eragile aktibo gisa, parte har dezaten bultzatzea.

b3) Immigranteen parte-hartzea bultzatzea, aniztasunaren kudeaketarako eragile aktibo moduan.

b4) Biztanleak oro har sentibera-tzea, eta bereziki, enpatia gutxien

c) Euskal hizkuntza sendotzea, proiektu hizkuntzanitzaren ardatz egituratzailea izan dadin; eta etorkinen ama hizkuntzak ezagutu daitezzen erraztasunak ematea.

durenak, immigrazioari buruzko ezagutza eta irudia hobetzeko helburuarekin.

b5) Etorkinak aisialdiko euskarazko eremu arautuetan (ez laguntzakoetan) parte hartu dezaten erraztasunak ematea.

c1) Hezkuntza eskaintzari buruzko informazioa badagoela bermatzea, eta informazio horrek ikasleen familiei ikastetxearen eta hezkuntza ereduaren hautaketa egiten lagunduko diela ziurtatzea.

c2) Bertako gurasoak sentsibilizatzeko estrategia aldatzea, beren seme-alabak ikaste etorkinak dau den ikastetxeetan matrikula ditzaten.

c3) Ikastetxeetan konplizitate estrategiak sortu euskara edota gaztelania/frantsesa ez den beste hizkuntza batzuetako hiztunekin —bai ikasleak eta bai gurasoak— balortuak eta estimatuak senti daitezten.

c4) Ikastetxeetan berandu sartu diren ikasle etorkinek euskal hizkuntza era intentsiboan ikasteko hezkuntza materialak bultzatzea, eta ohiko hezkuntza ibilbideetan era progresiboan sar daitezen sustatzea<sup>5</sup>.

c5) Gurasoak animatu beren seme-alabei lagun diezaieten ama hizkuntza (edo ama hizkuntzak) mantendu eta garatu ditzaten.

c6) Irakasleen eta familia etorkinen arteko enkontruak sustatzea.

---

*Bi norabidetan.  
Ezinbestekoa da etorkinek euskal kultura eta hizkuntza ezagutzea, baina, aldi berean, etorkinen jatorrizko hizkuntzak eta kulturak ere errespetatu egin behar dira.*



---

***Integralismoa.***  
***Euskararen erabilera***  
***zabaltzeko politikaren***  
***helburua biztanle guztiek***  
***hizkuntza hori ezagutzea***  
***izan behar da, nahitaez;***  
***eta hizkuntzak***  
***gizartearen sektore***  
***guztietan egon behar du,***  
***eta, besteak beste, iritsi***  
***berriak sozializatzeko***  
***espazioak osatzen***  
***dituzten eremuetan.***

d) Etorkinek euskara ezagutu dezaten<sup>6</sup>.

e) Immigrazioak dakarren aniztasuna euskararen normalizazio prozesuaren aldeko osagai gisa bideratzea.

f) Euskararen normalizazioari testuinguru askotariko batean heltze-

d1) Immigrazio berritik datozen pertsonak euskara ikasteko ikastaro orokorretara sar daitezten bultzatzea.

d2) Etorkin iritsi berriei euskara ikasteko erraztasunak ematea, eta horretarako, euskara ikasteko eskaintza ikasleen beharretara egokitzea (formazio maila, ordutegia...). Bestalde, euskara harrera hizkuntza gisa ikasteko metodologia moldatzea.

d3) Euskal hiztunen eta euskara ikasten ari diren etorkinen arteko harremanak erraztea.

e1) Euskal gizartearentzat eta etorkinentzat herritartasun eta naziotasun eskubideak eskatzea — hizkuntza eskubideak barne—.

e2) Euskara gizartearen kohesiorako osagaia dela oinarri duen ideia sozializatzea, hau da, nortasun osagai bat dela, ez osagai baztertzailerik; eta jakinaraztea euskara ikastea lagungarria dela hizkuntza horrek bizirik iraun dezan eta bere onera itzuli dadin.

e3) Lan egitea etorkinak ohar daitezten gizartean zein lan munduan eta hezkuntzan txertatzeko euskara ikastea baliagarria dela.

e4) Euskararen etorkizuna hein handi batean hiztun berrien baitan dagoela —edozein dela hiztun berri horien jatorria edo ezagutza maila— ideia horretan sakondu.

f1) Euskararekin eta immigrazioarekin zerikusia duen informazioa

ko erreferentziazko marko teoriko baliagarriak zehaztea.

trukatzeko eta eztabaidarako foroak, mintegiak edota kongresuak antolatzea.

f2) Immigrazioa eta euskararekin zerikusia duten ikerketak eta azterketak burutzea.

## HIZKUNTZAREN IKASKETA ETA INTEGRAZIOA SOZIALA: TXANPONAREN AURKIA ETA IFRENTZUA

Pentsatu ohi da etorkinak euskalduntzen badira horrekin batera integratuko direla euskal gizartean, eta indarra jartzen da etorkinak euskaldundu daitezen bide metodologiko ezberdinak abian jartzen. Alabaina, praktikak erakusten digu zaila eta nekeza dela etorkinak euskalduntzea. Izan ere, metodologiaz gain, edo horien gainetik, hizkuntza bat ikasteko ezinbestekoa da hizkuntza horrekiko motibazio positiboa eta aldeko jarrera izatea. Eta, honako honetan hain zuzen ere, jarri behar dugu indarra: lortu behar duguna da gurera etortzen diren etorkinak euskal gizarteko parte senti daitezen, eta ahalegin handia egin behar dugu, beraz, aurreiritzien eta esterotipoen kontra, guztiok, edozein dela gure jatorria, pareko senti gaitzen.

Ignasi Vilak esaten duenez, hizkuntza ikastea eta integrazio soziala txanponaren aurkia eta ifrentzua dira. Hizkuntzaren ikaskuntzak eta integrazioak, azken batean, unitate bat osatzen dute, asimilazioaren eta homogeneitatearen aurrez aurre dagoen unitatea. Ezin ikas daiteke norbaiten hizkuntza, baldin eta pertsona horrek gutxietsi egiten badu bere hizkuntza ikasten duen oro, eta halaber, ezin pentsa daiteke integrazioaren gakoak hizkuntzaren ikaskuntza denik. Biek unitate bakarra osatzen dute heldu zein gazteengan. Hizkuntza eta integrazioa elkarren osagarri dira, eta elkarren beharra dute gainera; baina, horretarako, ezinbestekoa da integrazioa elkarrenganako izatea eta ez asimilazio bidezkoa. Prozesu horretan, errespetatzea, balioestea eta immigrazioak bere hizkuntzari eusteko baliabideak bideratzea ezinbesteko osagaiak dira herrialdeko eta eskolako hizkuntzarekin bat egin dezan.

Hortaz, etorkinak euskalduntzeko edozein esku hartzek gizartea aldarzteko asmo orokorrago batera loturik egun behar du; eta esku-hartze horrek, era berean, gizartea hobea eta justuagoa izan dadin lagunduko du:

“(…) prestakuntza eta harrera prozedura gizarte giroari eta elkarbizitzari dagozkien aldatetekin batera gauzatu beharra baita, eta, alderantzizko norabidean, pertsona etorri berriak hartzen dituen lurraldearen hizkuntzan gaitzeak integrazioa errazten du, eta, azken batean, gizarte kohesioaren aldekoa gertatzen da.”<sup>7</sup>

■

*Izan ere, metodologiaz gain, edo horien gainetik, hizkuntza bat ikasteko ezinbestekoa da hizkuntza horrekiko motibazio positiboa eta aldeko jarrera izatea. Eta, honako honetan hain zuzen ere, jarri behar dugu indarra: lortu behar duguna da gurera etortzen diren etorkinak euskal gizarteko parte senti daitezen, eta ahalegin handia egin behar dugu, beraz, aurreiritzien eta esterotipoen kontra, guztiok, edozein dela gure jatorria, pareko senti gaitzen.*

**Ezin ikas daiteke  
norbaiten hizkuntza,  
baldin eta pertsona  
horrek gutxietsi egiten  
badu bere hizkuntza  
ikasten duen oro, eta  
halaber, ezin pentsa  
daiteke integrazioaren  
gako hizkuntzaren  
ikaskuntza denik. Biek  
unitate bakarra osatzen  
dute heldu zein  
gazteengan. Hizkuntza  
eta integrazioa elkarren  
osagarri dira, eta elkarren  
beharra dute gainera;  
baina, horretarako,  
ezinbestekoa da  
integrazioa  
elkarrenganakoa izatea  
eta ez asimilazio  
bidezkoa.**

## BIBLIOGRAFIA

Albite, Pedro; Suárez, Castillo: "Immigrazioa, naziotasuna eta herritartasuna", in BAT soziolinguistika aldizkaria, 57 (2005), 163-174.

Aznar, Sílvia; Buesa, M. Sacramento; Terradellas, M. Rosa (coord): *Primer simposi: llegua, educació i immigració*, Universitat de Girona, Girona, 1998.

Besalú, Xabier: *Diversidad cultural y educación*, Síntesis, Madrid, 2002.

Fem un Salt solidari: *El Pla Local d'Accollida i Formació de Salt / Salt, elkartasunaren eremu bihur dezagun: Salteko harrera eta prestakuntzarako udalerrri plana*, txosten argitaratu gabea.

Generalitat de Catalunya: *Pla de ciutadania i immigració 2005-2008*, www.gencat.net.

*Hizkuntz eskubideen deklarazio unibertsala*, Bartzelonan, 1996ko ekainaren 6an.

Iriondo, Xavier: "Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren printzipio orokorrak" in *Hizkuntz politikak, Hizkuntz Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren ildoan*, Ciemen, Barcelona, 1998, 44-71.

Iriondo, Xabier: "Hizkuntza eskubideen lege estatusa", in *BAT soziolinguistika aldizkaria*, 41 (2001), 87-111.

Nazio Eztabaidagunea: *Euskal Herriaren egoera*, www.eztabaidagunea.org.

Nazio Eztabaidagunea: *Kultur nortasuna*, www.eztabaidagunea.org.

Marí, Isidor: "De l'acolliment lingüístic a la interculturalitat", in *Llengua i us*, 34 (2005), 45-53.

Mollà, Toni: *Manual de sociolingüística*, Bromera, Alzira, 2002.

Mujika, Xabier; Lasarte, Idoia: "Orokietari herri eskola", in *Jakin* 154 (2006), 93-100.

Udalbiltza: *Euskal Herria: datuen talaiatik*, Txalaparta, Tafalla, 2006.

Vila, Ignasi: "Inmigración, educación y lengua propia", in *La inmigración extranjera en España*, Fundación la Caixa, Barcelona, 1999.

## OHARRAK

1. Euskararen erabilerak Bizkaian eta Gipuzkoan baino ez du gora egin. Nafarroa Garaian, bere horretan mantentzen da, eta gainerako herrialde historikoetan jaitsi egin da.
2. Euskal hiztunen kopuru absolutua igotzen ari bada ere, gaztelaniaz/frantsesez euskaraz baino hobeto moldatzen direnei esker gertatzen ari da, batez ere.
3. Euskararen ezagutzak gora egin du Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Nafarroa Garaian egoera egonkorra da, eta Ipar Euskal Herrian gero eta euskaldun gutxiago dago.
4. Edonola ere, ikasle gehienek euskararen ezagutza bermatzen ez duten ereduetan ikasten dute.
5. Etorकिन seme-alabak gela arruntean eskolatu beharko lirateke, eta ez gela berezietan edo harre-  
ra gelatan. Izan ere, lortu beharreko helbururik behinena da ikastetxera egokitzea. Horren arabera-  
koak izango dira eskolako hizkuntzaren ikasketa eta curriculumaren bestelako edukiak.
6. Etorकिन bat ikastaro orokor batean sar badaiteke, hizkuntza irizpideak bakarrik kontuan hartuta,